

DLEKLINABIDEAK II

1. Osatu testua parentesi arteko hitzak deklinatuz, eta esan zer galderari erantzuten dion horietako bakoitzak.

Ixone (aireportu) _____ (1) aurkitu genuen, (Londres) _____
 (2) heldu zen (Loiu) _____ (3).
 Autoan hartu, eta (etxe) _____ (4) eraman genuen. (Britainia Handia) _____ (5) ibilaldiak kontatu zizkigun, hiri batetik bestera egindako bidaiak.
 Egun batean, (Birmingham) _____ (6) Liverpooletara joan omen zen trenez, The Beatles taldearen aztarnen bila. Beste batean, Manchesterretik (Oxford) _____ (7) auto-stopean, hango Unibertsitatea ezagutzeko asmotan...
 Guk inbidia galanta sentitu genuen. Gu ere egunen batean joango gara, bai, haraino.

2. Osatu taula.

	<i>Singularra</i>	<i>Plurala</i>	<i>Mugagabea</i>
NON	<i>Aireportu-AN</i>		<i>Aireportu-TAN</i>
NONDIK			<i>Aireportu-TATIK</i>
NORA		<i>Aireportu-ETARA</i>	<i>Aireportu-TARA</i>
NORAINO			<i>Aireportu-TARAINO</i>
NONGO			<i>Aireportu-TAKO</i>

3. Esan nabarmendutako hitzak **singularrean**, **pluralean** edo **mugagabea** dauden.

- a. Hainbat **antzerkitan** hartu izan dugu parte Ikerrek eta biok.
- b. **Geltokitik** pasatu ginen zure etxera joateko, eta ez genuen Arene ikusi.
- c. Herri inguruko **elizetako** kanpaiak jo eta ke aritu dira goiz osoan.
- d. Eraikin hartako **leihoetatik** kea ari da irteten.
- e. Ernioko **tontorreraino** igo ginen, baina leher eginda iritsi ginen.
- f. Getariko **hondartzan** ez zegoen jenderik.
- g. Katuak baserriko **atetik** sartu ziren ihesi.